

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua berezi samarra eta nahiko berritzailea da merkatuan, kultura askok ez baitute heriotza beste begi batzuekin ikusten. Guk lortu nahi duguna da jendeari kontzientziatzea heriotza bizitzaren azken fasea dela eta ez dugula zertan tristura sentitu behar. Aitzitik, jendeak egun hori pertsona maiteenekin batera disfrutatzea nahi dugu.

Horregatik, gure zerbitzua adimen zabalagoa duen jendearentzat izango da, heriotzaz hitz egiten dugunean. Gure zerbitzua heriotza irribarre eta besarkadekin ospatzeko modu bat izan daiteke, ez negar eta malkoekin.



Batzuentzat bizitzaren azken fasea dela argi dago, baina beste batzuentzat berri baten hasiera da. Horretarako, terapia-programa bat daukagu, festa handi batekin hasten dena, hain maitea dugun pertsona horri agurtzeko. Lortu nahi duguna da, hainbeste maite dugun eta gure bizitzaren parte ez den pertsona horretaz oroitzapen polit bat izatea.

Gure terapiarako, heriotzan espezializatutako psikologo talde bat daukagu. Horiek programa pertsonalizatua eta bakarra diseinatuko dute gure bezero bakoitzarentzat.